

Club de lectura

Otsailaren 19a, asteartea, 18:30

Dinamizatzailea: Joseba Larratxe



Familia da emanda datorren gauza bakarra. Ez lagunak, ez bizimodua, ez ingurua, familia baizik. Norak, ordea, arau horri ihes egingo dio. Sekretu bat gordetzen du. Bere sekretua. Baina hura kontatzeko ordua iritsi da, eta sakratu den instituzioa eztanda egiteko zorian dago.

Jakina da, ordea, iraultza txikiak behar izaten direla gauzak bere onera ekartzeko.

Tolosako udal liburutegian 2019ko otsaila-2019ko maiatza

Martxoaren 26a, asteartea, 18:30

Dinamizatzailea: Joseba Larratxe



Teoria ederren zale baino, ekintza-gizona dugu Lucio Urtubia. Haren bizitza etenik gabeko borroka bat izan da, eta, batzuek kontrakoa uste duten arren, ondare hori utzi digu. Belatzek luze galdekatu du Lucio hainbestetan kontatutako pasadizoen inguruan, ekintzak, lekuak, pertsonak, gertakizunak, atmosferak iruditan zehaztasunez islatu ahal izateko. Hala, bada, cascantearraren biografo ofizial bihurturik, ezagutzen genituen abenturak eta ezagutzen ez genituen beste hainbat pasadizo ere kontatuko dizkigu irudigile iruindarrak.

Apirilaren 30a, asteartea, 18:30

Dinamizatzailea: Joseba Larratxe



Ilopangoko familia txiro bateko seme txikiena izanik, Migeltxok artopil zopa jenez zaildu behar izan zuen sabela titiko haurra zela. 1930ean, El Salvadorreko Alderdi Komunista eratu zuen beste kide batzuekin. Urte hartan bertan SESBera bidaiatu zuen sobietar iraultza bertatik bertara ezagutzeko. Handik itzuli ostean Martinez jenerala buru zuen gobernu totalitarioaren aurka jardun zuen 1932ko indigena eta langileen matxinadaren antolakuntzan. Migel atxilotu eta fusilatu egin zuten gainerako burkideak eta beste milaka indigena bezala. Baina Migelek aurre egin zion heriotzaren diktadurari eta ez zion inoiz justizia sozialaren alde borrokatzeari utzi.

Irakurketa kluba

Maiatzak 21a, asteartea, 18:30

Dinamizatzailea: Joseba Larratxe



2016ko neguan, Eduardo Madina eta Fermin Muguruza Iruen elkartu ziren. Aitzakia *Jot Down* magazinarako elkarrizketa bat izan zen, baina edozein estakuru izan zitekeen egokia bi euskaldun horiek, bizi-ibilbide itxuraz oso desberdinak izan dituzten bi euskaldun horiek, elkartzeko. Madina eta Muguruza solasean aritu ziren kafe baten aurrean, Alfonso Zapico marrazkigileak une haren potreta bere koadernoan jasotzen zuen artean. Zirriborro haiek izan ziren *Zubigileak* albumaren hazia. Euskal gazteen zenbait belaunaldiren narrazioa da albuma, zuri beltzean marraztu beharreko historia..